

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



Erakunde autonomiarena
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Nola egin laburpen egoki bat?

Laburpen orok ezaugarri batzuk bete behar ditu, eta, horretarako, zenbait eginkizun kontuan hartzea ezinbestekoa da.





Laburpenak zehatza, fidela eta informatiboa izan behar du.

Ezaugarri horiek betetzen direla ziurtatzeko:

- 1. Arretaz irakurri laburbildu beharreko testua.**
- 2. Zehaztu gai nagusia zein den.**
- 3. Jaso funtsezko ideia guztiak.**
- 4. Bereizi ideia nagusiak eta bigarren mailakoak.**



Laburpenak ahalik eta laburrena izan behar du.

Horretarako:

- 5. Baztertu osagarri eta txikikeria guztiak.**
- 6. Saihestu errepikapenak.**



Laburpenak objektiboa izan behar du.

Objektibotasuna lortzeko:

7. Baztertu iritziak, edukiaren parte ez direnean.



Laburpenak argia eta koherentea izan behar du.

Helburu hori lortzeko, ezinbestekoak dira bi eginkizun hauek:

- 8. Ondo egituratu testua.**
- 9. Ondo lotu elementu guztiak.**

Adibide gisa, hiru laburpen egokitu ditugu eskema honi jarraiki:

Jatorrizko bertsioa

Lehenik, **jatorrizko bertsioa** erakutsiko dugu.

Egokitutako laburpena

Gero, **egokitutako laburpena**.

Egindako aldaketak

Eta, azkenik, **laburpena egokitzeko egindako aldaketak**.

1. ADIBIDEA

Webgune batean, lotura baten edukia deskribatzeko laburpena:

Jatorrizko
bertsioa

Adikzioak

Adikzioak arazo larria dira eta gure arreta behar dute. Uste dugu adikzioei buruzko informazioa denok behar dugula, loturiko esparruetako langileak izan ala ez. Atal honetan topatuko duzu.

Egokitutako
laburpena

Adikzioei buruzko informazioa

Herritarrentzat, baita osasunaren sustapenean, adikzioen prebentzian eta gizarteratzean lan egiten duten pertsonentzat ere.

Egindako
aldaketak

- Gai nagusia zehaztu dugu izenburuan.
- Iritzi-forma saihestu dugu (*Uste dugu*).
- Informazio osagarria baztertu dugu (adizioak arazo larriak direla, gure arreta behar dutela eta atal honetan informazioa topatuko duzula).
- Funtsezko eduki bat hobeto zehaztu dugu (informazioa zehazki norentzat den).

2. ADIBIDEA

Mahai-inguru baten ondorioen laburpena, ahozko kodean:

Jatorrizko
bertsioa

Euskara eta zientzia

START

“Mahai-ingurua ederra izan da. Eskerrik asko parte hartzaileei, eman duzuen informazioagatik; oso aberasgarria izan da, eta beste ondorio batzuk ere atera ditugu.

Zientziak, terminologiaz gain, prestigioa ere ematen dio euskarari. Euskarak gauza guztietarako balio du, eta zientziak hori frogatzen du. Eta, gainera, zientzia euskaraz egiteak “komunitate” gisa sentiarazten gaitu.

Horrez gain, abian jarri ditugun proiektuetan sakontzen jarraituko dugu. Euskaraz egin ditugu argitalpenak, eta euskaraz egiten jarraitu behar dugu. Kalitate hobea dutenak. Eta topaketa gehiago egingo dugu, eta abar.

Eta, bukatzeko, zientzia esparruan, ez dugu jarraituko era pasiboan funtzionatzen, eta euskal eragile izatera pasatuko gara”.

Euskara eta zientziari buruzko mahai-inguruaren ondorioak

“Mahai-ingurua ederra izan da. Eskerrik asko parte hartzaileei, eman duzuen informazioagatik. Ondorio batzuk azpimarratu nahi ditugu:

- Lehenengoa: mahai-ingurua oso aberasgarria izan da.
- Bigarrena: zientziak, terminologiaz gain, prestigioa ere ematen dio euskarari, euskarak gauza guztietarako balio duela frogatzen baitu.
- Hirugarrena: zientzia euskaraz egiteak “komunitate” gisa sentiarazten gaitu.
- Laugarrena: dagoeneko abian jarri ditugun proiektuetan sakontzen jarraitu behar dugu; hala nola kalitatezko euskal argitalpenak egiten, baita arloz arloko topaketak antolatzen ere.
- Eta bosgarrena: zientziaren esparruan, euskal eragile izatera pasatuko gara”.

Egindako
aldaketak

START

- Gai nagusia izenburuan deskribatu dugu.
- Ondo egituratu dugu testua. Nola?
 - Ondorioei sarrera gehituz (*Ondorio batzuk azpimarratu nahi ditugu*).
 - Ondorioak enumerazio gisa eskainiz (*Lehenengoa, bigarrena...*).
- Elementuen arteko loturak hobetu ditugu. Nola?
 - Ondorio bakoitza ondo bereiziz (batzuk nahastuta egon baitira).
 - Abian jarritako proiektuak zein diren zehatzago deskribatuz.

Hemendik kanpo lan egitea

Europar Batasuneko (EB) erakunde, organismo eta agentzietan, gutxi gorabehera 50.000 enplegatu publiko propioak (funtzionarioek eta agenteek) egiten dute lan. Urtero egiten dira enplegatu ugari kategorian ezberdinetan eta askotariko lanetarako kontratatze prozesuen deialdiak, nazionalitatearen arabera kuporik edo parte hartu ahal izateko adin-mugarik gabe.

Gainera, denbora jakin batez EBn praktika profesionalak egiteko aukera daukate unibertsitateko ikasleek eta tituludunek.

Bestalde, estatu kideetako administrazioetako enplegatu publikoek beren lan-esperientzia handitu dezakete, aldi baterako egonaldiak eginez askotariko modalitateetan, aditu nazional gisa.

Langileen hautaketa

Egindako
aldaketak

EBeko instituzioek, erakundeek eta agentziek langileen hautaketa-prozesuak deitzen dituzte urtero. Europar Batasuneko kide den edozeinek parte har dezake horietan; hots, ez dago nazionalitatearen arabera kuporik, ezta parte hartze adin-mugarik ere.

Hautagaiek trebatuta eta motibatuta egon behar dute, eta oso gaituta egon behar dira gai orokorretan zein espezifikoetan.

Enplegu-aukera gehien Bruselan eta Luxemburgen egoten dira, baina badaude aukerak EBeko edo hortik kanpoko beste udalerrri batzuetan ere.

Europar Batasuneko administrazioetan lan egitea

EBeko instituzioek, erakundeek eta agentziek langileen hautaketa-prozesuak deitzen dituzte urtero EBeko edo hortik kanpoko beste udalerri* batzuetan ere lan egiteko. Europar Batasuneko kide den edozeinek** parte har dezake horietan, eta ez dago adin-mugarik.

Abantaila ugari eskaintzen dituzte. Bi hauek, adibidez:

- Unibertsitateko ikasleek eta tituludunek praktika profesionalak egiteko aukera daukate.
- Administrazioetako enplegatu publikoek aldi baterako egonaldiak egin ditzakete askotariko modalitateetan, aditu nazional gisa.

*Enplegu-aukera gehien Bruselan eta Luxemburgen egoten dira.

**Hautagaiek trebatuta eta motibatuta egon behar dute.

Egindako
aldaketak

- Gai nagusia izenburuan deskribatu dugu.
- Errepikapenak ezabatu ditugu (lehenengo paragrafoaren informazioa bitan agertzen da testuan).
- Abantailen gaineko paragrafoa hobeto egituratu dugu, zerrenda bitartez.
- Ideia nagusien eta bigarren mailako ideien arteko aldea era argian adierazteko, bigarren mailakoak testuaren atzeko aldera eraman ditugu, eta letra-tamaina txikiagoan idatzi (oin-oharrak balira bezala).
- Osagarri batzuk kendu ditugu (kontratazio-kopurua, hautagaiek gaituta egon behar dutela gai orokorretan zein espezifikoetan eta Brusela zein Luxenburgo ez diren herrialdeetan ere aukerak daudela lan egiteko).

Bi ohar garrantzitsu:

- **Laburpenaren luzerak ez du jatorrizko testuaren luzeraren % 25 gainditu behar.**
- **Laburtzea ez da testuaren zati bat kopiatzea.** Laburtzea ideia nagusiak eta bigarren mailakoak modu argian berreskuratzean datza, testuingurua aldatu gabe. Horrek, sarritan, elementuen jatorrizko ordena aldatzera behartzen gaitu.



Aurkezpena
bukatzeko,
aipatutakoak
laburtuko ditugu
grafiko batez.



